



Different Trains

Bideoarte erakusketa



Steve Reich

Beatriz Caravaggio



Kronos Quartet



**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Fundación **BBVA**

ArsVideo PRODUCCIONES

BBVA Fundazioaren jarduera-egitarauaren orientabide nagusia ikerketa zientifikoa eta kultur sorkuntza sustatzea da, bai eta hori gizartera zabaltzea ere, hainbat kanalen bidez. Zientziak eta arteak etengabe zabaltzen ari den alor zabala osatzen dute, eta horien bien arteko elkarrekintzak *continuum* kultural bat osatzen du, zeinak laguntzen dion berrikuntzari, norbanakoaren eta taldearen aukerak zabaltzeari eta XXI. mendean gizarteak oro har dituen erronka konplexuei eraginkortasunez ekiteari. Horren guztiaren gainetik, bada gizabanakoen helburuen eta lehentasunen ezinbesteko osagai bat, hain zuzen ere, oinarri zientifikoko ezagutzaren eta sorkuntza artistikoaren ikuspegiez eta emaitzez jabetzeko nahia —biak ala biak egitura irekikoak eta etenik gabe berrikusteko modukoak—, modu paregabean asebetetzen baita horrela haien jakin-mina.

Premisa horiei erantzunez, BBVA Fundazioak zuzenean laguntzen die zientziaren eta kulturaren eremu zabaleko gizabanakoen eta taldeen lanari (ikerketa eta sorkuntza proiektuak), eta dagokien onespina (sariak) eta zabalkundea ematen die (hitzaldiak, argitalpenak, grabazioak), eta, horretarako, oinarrizko ezagutza zein ezagutza aplikatua hartzen ditu bere baitan, fisikatik eta matematikatik hasi eta biomedikuntzaraino, eta baita ere ekologia eta kontserbazioaren biologia, aldaketa klimatikoa hainbat diziplinatatik aztertuta, gizarte zientziak eta humanitate digitalak. XX. eta XXI. mendeetako sorkuntza literarioa, arte plastikoak, bideoarte eta musika dira BBVA Fundazioaren kultur egitarauaren erdigunea, eta indar berezia ematen zaie orainaldiko sorkuntzari eta diziplina eta genero artistikoen arteko elkarrekintzari, bideoarteari eta musikari, bereziki.

BBVA Fundazioaren Ezagutzaren Mugak saria jaso duen Steve Reich maisuaren musika-lan berritzailearen integrazioak —Kronos Quartetek kanonikoki interpretatua— eta Beatriz Caravaggioren bideoarte-lanaren semantika bisual oroitazle eta konplexuak ezin hobeto erakusten dute BBVA Fundazioak ikuspegi eta esparru artistiko diziplinatuen elkarrizketaren, osagarritasunaren eta ongarritze gurutzatuaren alde egiten duen apustua.

Kultura babesteko ildo honen barruan dago, hain zuzen, 2002. urtetik BBVA Fundazioak Bilboko Arte Ederren Museoarekin izan duen lankidetzari; izan ere, BBVA Fundazioa Museoaren Patronatuko kidea da. Museoarekin hartutako konpromiso hori berritu egin da orain, Bideoarteko eta Sorkuntza Digitaleko Programa berri baten bitartez, eta erakusketa hau programa horren lehenengo emaitza da.

Steve Reich eta *Different Trains*

1965. urteaz geroztik, Steve Reichen musika-proposamenek nabarmen desegin nahi izan dituzte herri musikaren eta musika kulturearen artean oztipoak jartzen zituzten ohitura eta konbentzioak, eta proposamen horiek lagungarriak izan dira baita ere Afrikako eta Sortaldeko tradizio zaharreko musikak eta mendebaldean sortutako musikak mugatzen zituzten siluetak lausotzeko. Aurrekoak bezain garrantzitsuak diren beste osagai batzuek Reichen ekarpena kristalizatzen dute, eta indar handiz laguntzen diote horren pertsonalizazioari: esate baterako, eguneroko objektu soinu-dunaren eta naturalen erabilera; zientziei, erlijioei, arte plastikoei eta eszenikoei egindako erreferentziak (antzerkia, dantza), eta baita teknologia berriei eta, azken batean, gizakiaren pentsamendu pluralari egindakoak ere; erreferentziak bere (gure) garaiko gertaerei eta albisteei, artista konprometituaen jarrera agertuz horien aurrean; bere musikak izaten duen elkarrizketa, mota askotako folkloreekin, jazzarekin, rockarekin, poparekin..., eta horrek guztiak berarekin ekarri du Steve Reichek garrantzia lortu izana, bai kontzertu aretoetan bai jende askorentzako eremu ireki handietan, joera guztietako komunikabideetan, Interneten... eta horren guztiaren ondorioz izan da protagonista, nola Zubin Mehtarekin batera New Yorkeko Filarmonikoaren kontzertuan Carnegie Hallen, hala YouTubeen milioika jarraitzaile izan dituzten bideo-sorkuntzetan: hala gertatu da, esate baterako, James Murphyyren *Hello Steve Reich mix* izenburuko lanarekin, zeina *Clapping music* zoragarriarekin hasten baita, eta David Bowieren musikarekin jarraitzen baitu.

Steve Reich New Yorken jaio zen 1936an. Filosofia ikasi zuen eta Wittgensteini buruzko

lan batekin egin zen doktore. Musikaren alorrean, pianista gisa prestatu zen, eta interes handia izan zuen harentzat XVIII. mendetik 1900. urtera bitartean osatutako europar musikak —kontzertu sinfonikoak, opera eta diskografia biltzen zituena—; baina arte horrenganako interesa areagotu egin zitzaion, antzinako musika eta musika garaikidea ezagutu zituenean. Jazza Overtonekin ikasi zuen, konposizioa Bergsmarekin eta Persichettiarekin, eta Milhauden eta Berioaren ikastaroetan parte hartu zuen; berak adierazitakoaren arabera, ordea, bertan ikasi zuen zer ez zuen egin nahi. Indonesiako musika tradizionala ikasi zuen Seattlen eta Berkeleyn, eta afrikar perkusioa Ghanako Unibertsitatean: bi adierazpen musikal herrikoi horietan funtsezkoak dira eredu errepikakorrak, eta baita haien erritmoen aberastasuna eta gozotasuna ere, eta horiek aurkikuntza liluragarriak eta ikasketa-iturri izan ziren Steve Reichentzat, horrenbeste ezen Reichen lan askoren funtsa izan diren. Eta lan horiek musika errepikakorraren edo *minimal art* joeraren soinu eta musika bertsiorearen eredu gisa gelditu dira. Estatu Batuetan eta Jerusalem, hebrear testu sakratuen deklamaziorako forma tradizionalak ikasi zituen Reichek, eta hori oinarritzakoa izan zen, bere lanetako testuen eta musiken arteko harremanak garatzeko. Estatu Batuetan oso modu aktiboan parte hartu zuen musika elektroakustikoaren esperientzia aitzindarietan eta La Monte Youngek eta Terry Rileyk proposatutako minimalismoaren lehenengo urrats gisa har litezkeen kontzertuetan. Era berean, harremana izan zuen John Cageren eta Philip Glassen soinuaren eta estetikaren mundu konplexu eta eraginkorrenekin; azken horrekin partekatatu zituen, halaber, musikaren inguruko kezak eta beste hainbat jarduera. Steve Reichek harreman etengabea eta aberatsa izan du dantzarekin, eta, horren ondorioz, hainbat lan egin ditu

koreografo askorekin batera, hala nola Laura Dean, Anne T. De Keersmaeker, Jiří Kylián, Jerome Robbins, Alvin Ailey, Maurice Béjart... eta lankidetzan jardun du irudiaren artean sortzaileekin ere. Teoria eta praktika, konposizioa eta interpretazioa, elkarrengandik bereizi gabe, Steve Reichek, bai bakarka bai berak eraturako taldeekin batera (Steve Reich and Musicians), oparo esku hartu du mundu osoan zehar bere musikaren zabalkundean, eta lan handia egin du kontzertuaren formak, musika-antzerki emanaldiak, *performanceak*... sakontasunez berritzeko; izan ere, sorkuntza eta musika esperientzia berriak proposatu ditu, eta, modu horretan, bestelako komunikazio-moduak sortu ditu, beste espazio batzuk iradoki ditu, eta beste ikusle batzuegana iritsi da.

Steve Reichen konposizio-esperientzia aitzindarien artean dago *phasingari* buruzko lana: prozesu errepikakorak, fasean edo defasatuta, zeinak aurkeztu litezkeen grabazio itxietan (*It's gonna rain*, zintarako), interpreteekiko zuzeneko errealizazioetan, edo bi soinu-iturri motak bateratuz (*Piano phase*, *Violin phase*, *Phase patterns*, *Dance patterns*). Reichek hasieratik erabili dituen prozeduren artean daude zuzenean egin eta mikroen bitartez grabatutako hotsen atzeraelikadura zein musika-periodoen denborazko *areagotzea*, eta, noski, oso modu egokian ustiatu ditu azken aurrerakuntza teknologikoek ematen dituzten aukerak; horri esker, aurretik grabatutako hotsak denboran luza ditzake, tinbrea deformatu gabe eta intonazioa aldatu gabe.

Reichek erritmoen eta perkusioen alorra ikertu zuen, bere karreran mugarri izandako eta jarraitu beharreko arrastoa utzi duten lanetan, hala nola *Drumming* (perkusioetarako) edo *Clapping music* (txaloak egiten dituzten musikarientzat); lan horiek bat egiten dute fase kontzeptuarekin. Aldi aberats hori laburtzen duen lana *Music for*

18 musicians da, zeinetan lanketa fasiko eta erritmikoak kontrapuntu kontzeptuekin eta aurkikuntza harmonikoekin eta tinbrikoekin aberasten diren.

New Yorkeko musikagileak Pérotinekiko (Parisko Notre-Dameko eskolako maisua, XII-XIII. mendeak) sentitzen zuen liluraren eraginez osatu zituen *New York counterpoint* (klarinete edo saxofoirako, hainbat bertsiotan) eta *Electric counterpoint* (gitarra elektrikorako eta gitarra zintarako edo taldeetarako); eta Reichen beste hainbat partituran ere nabarmena izan zen hura, hala nola *Music for 18 musicians* aipatu berrian.

Reichen musikak hitzarekin finkatzen duen harremana hainbat lanetan gauzatzen da, hala nola *Tehillim* (ahots eta taldeetarako, hebrear salmoen gainean) edo *Proverb* (ahots eta *ensemble*etarako), eta baita *The cave* eta *Three tales* lanetan ere; lan horiek, bestalde, operaren dimentsioa (teatrala) eskaintzen dute, eta Beryl Koroten sorkuntza bideografikoetan bermatzen dira.

Steve Reichen musika-tresnetarako partituras era askotako taldeetarako —eta askotan talde atipikoetarako— idatziak dira, hari-orkestra eta orkestra sinfonikoa barne, eta horien artean sartzen dira, besteak beste, *Variations for winds, strings and keyboards*, *Three movements*, *The four sections* eta *For strings* lanak. Horiez gainera, musika-tresnekin batera ahotsa behar dute beste batzuek, hala nola *The desert music*, *Daniel variations* edo oraingo honetan lantzen ari garenak.

Different Trains

Hari-laukotera eta aurretik grabatutako zintarako lan bat da; zinta horretan entzuten dira, halaber, beste hiru hari-laukoteren parte hartzea, eta baita hitz egiten duten ahotsak ere, eta, horiez gainera, hogeita hamarreko eta berrogeiko hamarkadetako amerikar

eta europar trenen hotsak. Londresko Queen Elizabeth Hall aretoan estreinatu zuen, 1988ko azaroaren 2an, Kronos Quartet taldeak.

Different Trains lanak musika klasikoko lan onenaren Grammy saria irabazi zuen 1989an.

Different Trains etenik gabe kateatzen diren hiru atal edo mugimenduz osatutako hots-musikaren kronika moduko bat da. Musika-tresnen zuzeneko soinuaren gainean —bi biolin, biola bat eta biolontxelo bat—, Bigarren Mundu Gerraren aurretik, bitartean edo ondoren Estatu Batuetako eta Europako herritarrei grabatutako elkarrizketetatik ateratako ahotsak eskaintzen ditu zintak.

Lehenengo mugimenduan, 'Amerika - Gerraren aurretik' izenburukoan, musikarekin batera Steve Reichek berak haurtzaroan izan zuen etxeko irakaslearen hitzak —Virginia— entzungo ditugu, eta baita amerikar burdinbideko langile batenak ere —Lawrence Davis—, gogora ekarriz Estatu Batuetan barrena, kostaldetik kostaldera, trenez egiten zituen bidaia luzeak, eta baita tren haiek, beren txistu ahaltzuekin, egiten zituzten hotsak ere. Steve Reichek, artean haurra zela, aldiari-aldiari ama ikusteko egiten zituen bidaia amaigabe haien oroitzapena da hau; izan ere, gurasoak banandu zirenean, bera New Yorken gelditu zen eta amak Los Angelesen hartu zuen bizilekua.

Bigarren mugimenduan, 'Europa - Gerra garaian', Holokausto nazian bizirik ateratako hiru lagunek (Paul, Rachel eta Rachella) beren esperientziari buruzko esaldiak esaten dituzte, eta, esperientzia horien artean daude trenetan kontzentrazio esparruetera eramaten zituzten bidaia fatidikoak; tren horiek Reichek ezagutu zituen trenen guztiz bestelakoak ziren, noski. Musika-gileak mugimendu honetan erabilitako grabazioa Yaleko Unibertsitateko soinu artxibotik hartua da, eta europar trenen hotsak eta zoritxarreko txirrinak entzuten dira bertan, ibilbide benetan hunkigarrian.

Hirugarren mugimenduan, 'Gerraren ondoren', Holokaustoan bizirik irten zirenen ahotsak entzungo ditugu ('Gerra amaitu da'... 'Seguru al zaude?'...), gerra amaitu eta berehala, eta ahots horiek Virginia eta Davisen ahotsekin batera entzuten dira, eta horien atzean, tren hotsak, amerikar trenen hotsak berriro ere.

Different Trains hauetan, hari-laukotearen zuzeneko joaldiarekin bat egiten duen zinta magnetofonikoaren edukia aberasteko, Reichek, beste musika-lan batzuetan egin bezala, eta grabatutako ahotsetatik abiatuta, doinuak (gaiak) lortzeko moduak probatzen ditu, eta, horretarako, *sampling* teklatu digitalaz baliatzen da. *Samplinga* aurreko mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan garatutako soinu-teknologia bat da, hain zuzen ere, soinua modu digitalean grabatzeko aukera sortu zenekoa, hau da, ordenagailuak ulertzeko moduko formatuan; horrek aukera ematen zuen harekin 'jolasteko' (manipulatzeko), eta, azkenik, emaitzak erreproduzitzeko. Lan honen lehenengo partean, Steve Reichek biola eta biolontxelo erabili zituen emakumeen zein gizonezkoen ahotsak 'pertsonifikatzeko', hurrenez hurren. Lanean zehar, laukotea osatzen duten musika-tresnek askotan ez dituzte doinuak jotzen, baizik eta erritimo zelula errepikakorrek, eta horixe da lanaren bereizgarria.

Konposizioaren planteamenduan berezitasuna agerikoa da, eta ukalezina da haren eraginkortasun adierazkorra. Reichek lan hau 'musika dokumentala' dela adierazi du; egiaz, ez dago hori baino definizio laburragorik zein hobierik.

José Luis García del Busto



Different Trainsen berri-daketa zinematografikoa

Berriro bisitatzea, berriro pentsatzea, gertatutakoari berriro begiratzea, orainaren jarduera artistikoa dira. Azken hamarkadetakoa jarrera kultural aktiboa XX. mendearen ondarea ikertzen du bereziki. Iraganerako itzulera horiek bizi izandakoaren gogoeta zehatza eskaintzen dute, memoriaren inskripzioak, existitzen direnak baino are sakonagoak. Itzulerako bidaiak hau aurreko mendearen hil osteko kapitulutzat har dezakegu.

XX. mendea lehena izan da, halaber, gizakiak bizi izandako denboran gertatutakoa zabal jasota uzteko eta interpretatzeko tresna-aukera zabala eskaintzen. Mende hori egunez egun inprimatu da, argazkiak atera zaizkio, soinua jarri zaio, filmatu egin da. XXI. mendean, berriz, gertatutakoa egiaztatzen duten tresna ugari horiek globalizatu egin dira eta guztiz ase dute beren funtzioa. Minutuz minutu hainbat formatu eta plataformatan idatzi, fotografatu, sonorizatu, filmatu, partekatu eta birtualki esperimentatu den garaia da. Gure garaiaren lekukotza erregistratzen duen material kopuru izugarri eta biziak zaildu egiten ditu begirada bare eta urrunak. XXI. mende hau ulertzeko oztopo horiek lagungarriak dira, beharbada, XX. mendearen bideetan barrena arrazoiak bilatzeko. Erregistro ugari garai hauen ezaugarrietako bat horien arteko intersekzioa da. Adierazpen nahasiak dira, interaktiboak, parte hartzaileak. Eta ezaugarri bereizle hori arte garaikideetan ere onartzen da. Artearen eremu askoren, palimpsesto modalitateen eta muga lausoak dituzten hainbat jardunen arteko sorkuntza hibridoen berrinterpretazioak, edo azterketa-objektu horretan behin betiko sakontzeko aukera ematen duten begirada poliedrikoak, horren guztiaren adibide dira.

Premisa poskultural horietan dago Beatriz Caravaggioren sorkuntza-lana. XXI. mendearen hasieran kokatuta, XX. mendeko funtsezko urteei begiratzen die: Holokaustokoei, hain zuzen ere. Laurogeiko hamarkadan musikalaren forman osatutako memoria batzuen berreraikuntza da lana: film bat. Hogeita hamar eta berrogeiko hamarkadan gertatutako esperientzia kolektibo batzuei buruz —nazismoaren basakeria jasan zutenen esperientziei buruz— gogoeta egiten dute Steve Reichen partitura biografikoei. Horrela lortzen dugu, gure orainaldian, lan diaristiko-musikal-zinematografiko berezi eta konplexua, zortzi bat hamarkadarako sorkuntza-uztaia biltzen duena.

Memoriaren erritmoak, atalak eta konposizioak

Steve Reichen *Different Trains* lana pentsamendu baten deskribapena da. Hautzarroan, Estatu Batuetako kostalde batetik bestera bidaiatzen zuen musikagileak, dibortziatuta zeuden gurasoengana joateko. Haur bat tren handietan, hainbat egun irauten zuten bidaiak, abentura gisa biziak ibilbide luzeak. Helduaroan, bere sustrai juduetan barreneko ikerketa-prozesuan, musikagilea jabetu zen, berak zeharbide ikusgarri horiez gozatzen zuen bitartean, istorio etsiak zebiltzala beste errail batzuetan barrena, konfinamendura edo heriotzara bideratutako deportatuekin. Egokitu zitzaion zori onaz jabetzen da musikagilea, beharbada baita patuaren zamaz ere, judua izanik nazismoan murgildutako Europatik eta Holokaustotik urrun zeuden beste herrialde batzuetan baitzegoen.

Reichen musika-lanaren ezaugarri nabarmenena errepikapena da, eta oso presente daude trenen jarduera gogorarazten duten osagaiak. Lastertzea



eta mantsotzea nahasten dituzten uneez osatuta dago, eta horrek trenak har ditzakeen abiadurak ematen ditu aditzera. Trenaren funtzionamenduari lotutako txistu nabarmenak gailentzen dira. Eta modu berezian islatzen du triki-traka etengabe eta berezia, bidaiariarentzat barne erritmo bihurtzen dena. Estatubatuar musikagileak soinu errepikapen limurtzaile batean irudikatzen du hori guztia, entzumenaren trantze-egoera bat balitz bezala, egoera berezi batera zabalduko lukeena gogo. Ukiezina den eremu horretan sortzen da, hain zuzen, eremu fisiko urrunen, beste tren batzuen eta beste gizakien arteko lotura. Buruaren bidaia erritmiko hori izango da bere memoriaren oinarria.

Beatriz Caravaggiok Steve Reichen ideiak interpretatzen ditu, eta bizitza bisuala ematen dio partiturari. Beatrizen berrirakurketa azalduetako gaiarekin lotura duten eta bere garaiari dagozkion artxiboko irudien muntaiatik sortzen da, hau da, lotura dokumentala dute deskribatutako istorioarekin.

Filma naturatik eta paisaietatik barrena igaroko da, tren dotoreenganako mirespenarekin, eta hiri handietara eta eraikin garrantzitsuetara itzuliko da —Bigarren Mundu Gerraren ondorengo hiri paisaia grisa—, genozidioaren izugarrikerien erdi-erdiatik igaro ondoren. Denboran zeharreko igarobide horretan, konbinatu egiten dira esparruei, deportazioari, sarraskiari eta askapenari buruzko artxiboak; arlo errealairen inguruko testigantza eskasa zen lekuetan eta egoeretan filmatutako erregistroak, naziek grabatuak batzuk eta, geroago, aliatuek grabatutakoak besteak. Artxiboko materialaren hautaketan handiaren ondoren, bideoartistaren esku-hartzea irudi guztien berrantolaketa bikain batean oinarritzen da, fotogramaz fotograma osatutako lan metodiko eta zehatzean hain

justu. Prozedura horietatik abiatuta, oinarri dokumentala berridatzi egiten da argumentu-hari bat osatzeko, begirada narratzaile bat eraikitzeko.

Errealizazioari dagokionez, pantaila hiru partetan banatzen da, eta, era horretara, esanahien irakurketa-aukera zabala eskaintzen da. Alde batetik, triptikoa zertxobait deskonpasatuta dago, eta horrek denboraren zatiaketa eskaintzen digu, oroitzapen zatituak. Nahasturik agertzen diren oroitzapenak, dinamika, mugimendu eta ahots ugariz osatuak. Triptikoa, halaber, mugimenduen, formen eta testuren konposizio konplexu bat da, aberastasun iradokitzailez osatua, koordinazio, antzekotasun edo kontrasteen bitartez. *Collage* bat da, baina, aldi berean, artxibo-iturri ugariak bateratasun bisualaz pentsatuta daude, eta horrek kontakizun kohesionatua eskaintzen digu.

Beatriz Caravaggiok, bestalde, jatorrizko egiturari eusten dio, hiru mugimendutan banatzen baitu lana, eta, hirugarrenean, triptikoak balio berria hartzen du, esanahien kontrastetik abiatuta. Bizirik irten direnak beren helmuga berrietara iristen dira eta hiri horietako eguneroko erritmoak bereganatzen ditu haien bizitzak; baina horietan nahasturik egongo dira Holokaustoaren arrasto ezabaezinak. Era horretan, orainaren joana eta iraganeko oroitzapenak bat eginik egongo dira.

Traszendentsiak eta ondareak

Adierazpen artistiko asko lotu izan zaizkio gai horri: esparruetan bertan egindakoak (pintura, marrazkia, musika, literatura, poesia, besteak beste) zein gaur egun eginak. Lan asko daude erreferente bihurtu direnak, baina talentuak eta trebeziak, lan multzoa bera, nabarmendu baino gehiago, lan etiko, zorrotz, sakon edo adierazkorrenen

konglomeratuak gertaeren memoria kolektiboa osatzen du.

Era askotako jardunbideetatik, ondare eraginkorra osatzen dute memoria idatziek, literaturak eta poesiak (Paul Celan, Ana Frank, Imre Kertész, Eugen Kogon, Primo Levi, Elie Wiesel, beste askoren artean), zinemagileek (Alain Resnais, Claude Lanzmann, Andrzej Munk, Harun Farocki, László Nemes) edo musikak, hala nola aurrez aurre dugun Steve Reicherenak eta Beatriz Caravaggioren berridazketa zinetografikoak. Era berean, mundu osoko memorial eta museoek memoria historikoaren bateratze funtzioa betetzen dute, eta baita memoria artistikoarena ere. Era berean, ikusle oso *mainstream*engana iristen diren lanak sar litezke, eta, aurretik aipatutakoek baino sakontasun txikiagoa badute ere, erakutsitakoarenganako etika eta benetako interesa dute, eta herritar-geruza zabalari eragiten diote, beren ospeagatik. Horren adibide izan liteke Steven Spielbergen

film ospetsua (artxiboko materialarekin egindako funtsezko lana ahaztu gabe) edo zenbait komikirena, hala nola Bernard Krigsteinen aitzindaria edo Art Spiegelmanen ospetsua.

Horiek guztiek memoriaren inskripzio-ondare aberats eta askotarikoa osatzen dute. Gertatutakoa inoiz ez ahaztearen kontzeptu garrantzitsua biltzen duten irudikapenen monolitoa dira. XX. mendean bizi izandako historia, Holokaustoa eta horren arrazoiak eta ondorioak etorkizunaren memoriaren parte izango direla adierazten duen etorkizuneko herentziaren itxaropena topatzen dugu horietan guztietan. Gizakiongan hura berriro garatzea eragotziko lukeen jakintza egongo balitz bezala, ikaskuntza kognitiboan garai hartan sortutako irakaspen muturrekoak eta esperientziak irakatsiz.

Miquel Martí Freixas



I. Amerika - Gerraren aurretik

"Chicagotik New Yorkera" (Virginia)
"tren azkarrenetako bat"
"New Yorkeko espresa" (Davis jauna)
"New Yorketik Los Angelesera"
"aldi bakoitzean, tren jakin bat" (Virginia)
"Chicagotik New Yorkera"
"1939an"
"1939" (Davis jauna)
"1940"
"1941"
"pentsatzen dut 1941 izango zela" (Virginia)

II. Europa - Gerra garaian

"1940" (Rachella)
"nire urtebetetze egunean"
"Alemanak sartu ziren"
"Holandan sartu ziren"
"Alemanek Hungaria inbaditu zuten" (Paul)
"bigarren mailan nengoen"
"irakasle bat nuen"
"gizon oso altua zen, ilea leuna zuen, itsatsia"
"Esan zuen, 'Bele Beltzek orain dela urte asko inbaditu zuten gure herrialdea'"
"eta zuzenean seinalatu ninduen"
"Eskola gehiago ez" (Rachel)
"Joan egin behar duzu"
"eta emakumeak esan zuen, 'Bizkor, joan!'"
(Rachella)

"eta gizonak esan zuen, 'Ez hartu arnasarik!'"
"abereentzako bagoi haietan" (Rachella)
"4 egunez eta 4 gauzez"
"eta izen bereziko leku haietatik igaro ginen"
"poloniar izenak"
"Abere bagoi asko han"
"Jendez beteta zeuden"
"Ilea moztu ziguten"
"Zenbaki bat tatuatu ziguten besoon"
"Sugarrak zerurantz gora — kea zegoen"

III. Gerraren ondoren

"eta amaitu zen gerra" (Paul)
"Seguru al zaude?" (Rachella)
"Amaitu da gerra"
"Amerikara bidean"
"Los Angelesera"
"New Yorkera"
"New Yorketik Los Angelesera" (Davis jauna)
"tren azkarrenetako bat" (Virginia)
"baina, gaur, denak desagertu dira" (Davis jauna)
"Bazen neska bat ahots politarekin" (Rachella)
"eta izugarri gustatzen zitzaaien hura kantatzen entzutea, alemanei"
"eta kantatzeari utzi zionean, esan zuten:
'Gehiago, gehiago', eta txalo egin zuten"



© Jeffrey Herman

Steve Reich

New Yorken jaio zen, 1936an. Berari buruz esan izan dute, besteak beste, 'bizirik dagoen estatubatuar musikagilerik onena da' (*The Village Voice*), 'gure garaiko musika pentsalari bereziena da' (*The New Yorker*) eta '(...) mende honetako musikagile handien artean dago' (*The New York Times*). Bere musikak mundu osoko musikagile eta musikariengan izan du eragina. Bi Grammy sari irabazi ditu, *Music for 18 musicians* eta *Different Trains* musika lanengatik, eta 2009an, berriz, Pulitzer saria irabazi zuen *Double sextet* lanarekin. *The cave* eta *Three tales* multimedia operak, Beryl Korot bideoartistaren lankidetzarekin eginak, lau kontinenteetan ikusi dira. Milaka pertsonak entzun zuten Jonny Greenwood (Radiohead taldekoa) *Electric counterpoint* jotzen eta London Sinfonietta Glastonbury Festival jaialdian bere *Music for 18 musicians* lana jotzen. Horren ondoren agortu egin ziren Londresko Queen Elizabeth Hall aretoan

antolatutako bi kontzertuetarako sarrerak, Reichen azken lana, *Quartet*, entzuteko. Lan hori Colin Currie perkusionistarentzat osatu zuen, hain zuzen ere. 2012an American Academy of Arts and Letters erakundearen Musikaren Urrezko Domina jaso zuen. Horren aurretik irabaziak zituen Praemium Imperiale Tokion, Polar Prize Stockholmen eta BBVA Fundazioaren Fronteras del Conocimiento saria Madrilen. Orain dela gutxi, Urrezko Lehoia irabazi du Veneziako Bienalean. Reich Commandeur de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu dute eta *honoris causa* doktorea Juilliard Schoolen, Budapesteko Liszt Academyn eta New England Conservatory of Musicen, besteak beste. *The Guardian* egunkariak adierazi zuenez, 'musikagile gutxi batzuei baino ezin zaie egotzi, zinez, musikaren historiaren zentzua aldatzeko gai izatea, eta Steve Reich da horietako bat'.



© Ben Vine

Beatriz Caravaggio

Oviedon (Espainia) jaio zen. Bideoklipak egin ditu, film dokumentalak, bideosorkuntzak eta bideoinstalazioak. Hainbat jaialditan erakutsi dira Beatrizen dokumentalak, hala nola Montrealgo Festival du Film delakoan, Les Rencontres Internationales Paris / Berlin / Madrilen, Bogotako Zinema Jaialdian, Huelvako Iberoamerikar Zinema Jaialdian, eta, horiez gainera, hainbat telebistatan eskaini dira: Canal+ Españan, TV3 Televisió de Catalunya, EITB Euskal Irrati Telebistan, Canal Satellite Digitalen eta Documanian.

Bere bideoak eta bideoinstalazioak hainbat hiri eta aretotan erakutsi dira: BBVA Fundazioa, Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionala, Arte Ederren Zirkulua eta La Casa Encendida, Madrilen; Fundació Joan Miró eta CCCB Centre de Cultura Contemporània, Bartzelonan; Pertheko Biennale of Electronic Arts (Australia) eta Japoniako Canon Digital Creators Context delakoan, besteak beste.

Hainbat sari eta sorkuntzarako laguntza jaso ditu, hala nola ICAAren (Kultura Ministerioa) Ekoizpen Zinematografikoarentzako Laguntza; Madrilgo Centro de Creación Contemporánea Matadero zentroaren Sorkuntzarako Laguntza; Festival Minima saria eta Net.Art Visual saria, *Cartografía de la sospecha* lanagatik.



Kronos Quartet, 1990 – David Harrington, biolina; John Sherba, biolina; Hank Dutt, biola; Joan Jeanrenaud, txeloa. © Blake Little

Kronos Quartet

Berrogei urtez baino gehiagoz, San Franciscoko Kronos Quartetek ezin hobeto bateratu ditu esperientzia guztiz ausartak eta harizko laukote bat zer den birpentsatzeko konpromiso etengabea. Prozesu horretan, munduko *ensemble* ospetsu eta itzal handienetako bat izatera iritsi da. Milaka kontzertu interpretatu ditu, berrogeita hamar grabazio baino gehiago argitaratu ditu, musikagile eta interprete sorta eklektikoarekin jardun du lankidetzan, eta harizko laukoterako 850 musika-lan eta konponketa baino gehiago eskatu ditu. Kronos Quartetek Grammy sari bat eta Polar Music Prize eta Avery Fisher Prize sariak irabazi ditu. Kronos Performing Arts Association (KPAA) irabazi asmorik gabeko elkarteak kudeatzen ditu *ensemble*aren lanari dagozkion alor guztiak, horien barruan musika lan berriak, birak eta kontzertuen denboraldia San Franciscon, hezkuntza programak eta *Kronos Presents*

programa berria. 2015ean, KPAAk enkargu eta prestakuntza ekimen berri bat jarri zuen martxan: *Fifty for the Future: The Kronos Learning Repertoire*. Bost urtez, berrogeita hamar lan berriren komisarioa izango da (urtero, bost lan emakumeek egingo dituzte, eta beste bost gizonezkoek), eta doan banatuko ditu *online*. Nabarmentzen hasiak diren ikasle eta profesionalak prestatzeko diseinatu da, hain justu, proiektu hori.

“Gaur egun jende askok eskatzen du laguntza bisuala musikarentzat —baita kontzertuetan ere—, eta, ildo horretatik, zenbaitek hainbat bideo sortu dituzte nire *Different Trains* lanari laguntzeko. Egia esateko, ez ditut horietako gehienak ikusi, eta ikusi ditudanak desbideratu egiten dute arreta musikaren entzumenetik. Salbuespen bakarra Beatriz Caravaggioren bideo multikanal aberatsa da; merezi du ikustea, bai berez duen balioagatik bai *Different Trains* lanaren entzunaldia sendotzeko modu gisa. Beatrizek artxiboko irudiak erabili ditu, eta, pantaila ugariren bitartez eta muntaia zoragarri baten bitartez, gogoeta lan hunkigarria sortu du. Bikain, Beatriz!”, Steve Reich, 2017.



2017|04|26 2017|09|25

Bilboko Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

Museo Plaza, 2
48009 Bilbao

Tel. 94 439 60 60
www.museobilbao.com

Ordutegia
Egunero 10:00etatik 20:00etara
Astearteetan itxita

